



Ayuntamiento de BERRIOPLANO
BERRIOBEITIKO Udala
(Navarra – Nafarroa)

UDAL IKASTAROAK 2020-2021 **BERRIOBEITIKO UDALAREN AGIRIA**

2020-21 ikasturtea ziurgabetasunez beteta dago, COVID -19k sortutako ezohiko egoera dela eta. Hala ere, azken urteotan garatzen ari garen programen antolaketa lanean jarraituko dugu, baita gogo gehiagorekin ere

INSKRIPZIOEN ARAUDIA (eskuorriari egindako zuzenketak)

- **Izena aurretik** emateko epea: irailaren **2tik 8ra**
- **Ordainketa: 10, 11 eta 14an**, kreditu-txartelaren bidez
- **Errepeparen** eguna: irailak **21**

012 telefonora deituz
(Infolocal 948 012 012)

Aurreinskripzioan onartutakoek SMS bat jasoko dute mugikorrean, izen-ematea formalizatzeko eta plaza edukitzeko ordaindu beharreko egunen berri emateko.

Aurten, Covid-19 dela eta, pertsona bakoitzeko **inskripzio bakarra egin** ahal izango da, taldeen gehieneko kopurua murriztu behar izan delako. Horrela, ahalik eta pertsona gehienei parte hartzeko aukera eman nahi diegu. Hala ere, plaza libreak geratzen badira, errepeparen egunean, bigarren izen-emate bat egin ahal izango duzue, dei-ordenaren arabera.

Oharra: **SWING JARDUERA**: swingean izena emateko bikoteka egin behar da. Jardueran, bikote horiek finkoak izanen dira: bikotekideek ezin izanen dute bikotez aldatu, ezta beste batzuekin elkarreagin ere. Izen-ematea bikoteka egingo da, eta ez da onartuko pertsona bakarren inskripzioa. Hala ere, jardueran maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da. Erroldatutako bi pertsonaz osatutako bikoteek lehentasuna izango dute erroldatutako eta erroldatu gabeko bikote mistoen aurretik. Azken horiek, halaber, lehentasuna izango dute bietako inor erroldatuta ez dagoen bikoteen aldean.

COVID-19 ARAUAK:

Covid-19k sortutako osasun-krisia dela eta, jakinarazten da gure jardueretan izena emateak esan nahi duela parte-hartzaileek onartzen dituztela osasun-agintariek une bakoitzean ematen dituzten arauak eta gomendioak, bai eta talde bakoitzeko begiraleek ere. Horregatik, arau horiek aldatu egin daitezke ikasturtean zehar, egoera berrietara egokitzeko.

Begiraleek uneoro zainduko dute arauak betetzen direla eta jarduerak ahalik eta hobekien egin ahal direla.

GARRANTZITSUA:

Ikasle batek **EZIN DU JOAN** ikastarora egoera hauetan:

- PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten emaitzaren zain dagoen.
- Isolamenduan badago, PCR+ bidez diagnostikatutako koronabirus-infekzio bat duelako
- Berrogeialdian badago, COVID kasu baieztatu baten kontaktu estua delako.
- Koronabirus bidezko infekzioarekin bateragarriak diren sintomak baditu.

Positibo emanez gero, bidali e-mail bat deporteyjuventud@berrioplano.es helbidera protokoloa aplikatu ahal izateko.



Ayuntamiento de BERRIOPLANO
BERRIOBEITIKO Udala
(Navarra – Nafarroa)

IKASGELAN:

- **Maskara nahitaez** erabili beharko da ikastaroan eta joan-etorriak egin behar direnean. Ariketa fisikoa egiteko, maskara kendu ahal izateko, beste parte-hartzaileengandik urruntzeko egoera egokiak egon behar dira.
- Aretora sartu aurretik eskuak **hidrogelez** desinfektatu beharko dira.
- **Ikastaroek 5-10 minutu gutxiago iraungo dute, bata bestearen segidakoa bada.** Horrela, sarreran hurrengo taldearekin elkartzeari saihestuko da. Berriobeitiko erabilera anitzeko aretoan ate bat sarrerako eta beste bat irteerako erabiliko dira. Begiraleak joan-etorriak nola egingo diren jakinaraziko dizue.
- Eskuorrian agertzen den plaza-kopurua eskakizun berrien arabera alda daiteke, eskuorria joan den hilean egin baitzen.
- Pilates eta yoga **koltxonetak erabiltzeko**, parte-hartzaileek **mantatxo edo toalla bat ekarri** beharko dute, edo, bestela, erabili ondoren desinfektatu.
- Erabilitako materialak desinfektatu egin beharko dira erabilera bakoitzaren ondoren.
- Gomendatzen dugu **70etik gorako pertsonak** ez joatea talde-jardueretara, arriskuan dauden biztanleak direlako.
- Ukipena egon daitekeen jardueretan, metodologia aldatuko da, jarduerak, ariketak edo dinamikak banaka egiteko, osasun-agintariak ohiko moduan egiten uzten ez diguten bitartean. Kirol-diziplina bakoitzak dinamika desberdina izan dezake, ukipen mailaren arabera.

Izena eman duten pertsonen gomendatzen diegu alde aurretik osasun-azterketa egitea edo medikuarekin informatzea eta kontsultatzea.

Herritarren kirol-jarduera orokorretik eratorritako asistentzia sanitarioa sektore publikoko osasun-aseguramenduko erregimenaren eta/edo interesdunak duen aseguru pribatuaren esku geratzen da. Udalak ez du bere gain hartuko horrek eragiten duen gastua.

Eskerrik asko laguntzeagatik,

2020ko abuztuaren 25a
Berriobeitiko Udala.